

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.  
**Bilera-mota:** ohikoa.  
**Eguna:** 2007/03/28  
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:30.  
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**

Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.  
Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.  
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.  
Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.  
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.  
Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.  
Iñaki Mendia Izagirre, atxikigabeko zinegotzia.  
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.  
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.  
M<sup>a</sup> Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.  
Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.  
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.  
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

**Bertaratu ez direnak:**

Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.  
Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.

**Aztergaiak:**

1.- Bidezkoa bada, joan den 2007-2-14ko bilkurari dagokion akta onartzea.

**HIRGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:**

2.- Bidezkoa bada, Hiri-Ordenazioko Plan Orokorrari aurkeztutako alegazioak erantzutea.  
3.- Bidezkoa bada, Hirigintza-Hitzarmenak behin betiko onartzea.  
4.- Bidezkoa bada, Plan Orokorra behin-behineko onartzea.  
5.- Bidezkoa bada, Oletabidea kalearen

**Organo o Comisión:** Pleno.  
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.  
**Día:** 28/03/2007  
**Hora:** Comienzo y final: 19:30 hasta 20:30.  
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**

Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.  
José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.  
M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.  
Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.  
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.  
José Luis Zabaleta Idígoras, concejal de NV.  
Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.  
Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.  
M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.  
M<sup>a</sup> Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.  
Gerardo Anton Martin, concejal de IU.  
Fernando Arakama Fernández, interventor.  
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

**Personas que no han acudido a la reunión:**

Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.  
Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.

**Orden del Día:**

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 14-2-2007.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

2.- Respuesta a las alegaciones del Plan General de Ordenación urbana.  
3.- Aprobación definitiva, si procede, de convenios urbanísticos.  
4.- Aprobación provisional, si procede, del Plan General.  
5.- Aprobación, si procede, de denominación de calle Oletabidea.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

izendapena.

**KALITATEA ETA BERRIKUNTZA:**

6.- Bidezkoa bada, 2007ko ekitaldiko dirulaguntzak arautzen dituen oinarriak onartzea.

7.- Bidezkoa bada, 'Agenda 21eko hiritarren parte hartzeko foroaren izaera eta funtzioak eta Legazpiko udalarekin foroak duen lotura' izeneko dokumentua onartzea.

**LANGILEAK:**

8.- Bidezkoa bada, 2007ko Plantilla Organikoa eta Langileen zerrenda onartzea.

**ALKATETZA:**

9.- Oleria 2007.

10.- Gai judizialei buruzko infomazioa.

11.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.

12.- Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1. Bidezkoa bada, joan den 2007/02/14ko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Aho batez onartu da aipatu akta.

**2.- Bidezkoa bada, Hiri-Ordenazioko Plan Orokorrari aurkeztutako alegazioak erantzutea.**

Alkate jaunak hartu du hitza eta, hasteko, Udalbatza Aretoan Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra idatzi duen taldeko kide den Santi Peñalba dagoela adierazi du. Horrela, Korporazioko kideek eta bertaratu diren herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzea eska dezakete.

Gaia azaltzeko powerpoint artxiboa erabili du. Guztira, 59 alegazio aurkeztu dira. Horietako bost epeak luzatzeko eskariak izan dira eta 5 horietatik lau epez kanpo aurkeztu dira eta horiek, txostenean jaso dira. Bosgarren alegazioan epea luzatzea besterik ez da eskatu eta eskari hori ez da onartua izan.

**CALIDAD E INNOVACION:**

6.- Aprobación, si procede de Bases Reguladoras de subvenciones ejercicio 2007.

7.- Aprobación, si procede, del documento Naturaleza y funciones del foro de participación ciudadana de la Agenda 21 y su relación con el Ayuntamiento de Legazpi.

**PERSONAL:**

8.- Aprobación, si procede, de la Plantilla Orgánica y RPT 2007.

**ALCALDIA:**

9.- Oleria 2007.

10.- Información sobre asuntos judiciales.

11.- Dar cuenta de los decretos dictados.

12.- Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 14/02/2007**

Dicha acta es aprobada por unanimidad.

**2.- Respuesta a las alegaciones del Plan General de Ordenación urbana.**

Toma la palabra el Sr. Alcalde, señalando en primer lugar que se encuentra en el Salón de Plenos uno de los redactores del Plan General de Ordenación Urbana, Santi Peñalba, para que cualquiera de los miembros de la Corporación y público asistente pueda plantear sus dudas.

Comienza la exposición del tema valiéndose de un archivo powerpoint. Se han presentado un total de 59 alegaciones. 5 de esas alegaciones consisten en solicitudes de ampliación de plazos, de esas cinco, cuatro han presentado alegaciones fuera de plazo que han sido tratadas en el informe. La otra solicitud se ha limitado a solicitar la ampliación del plazo y ha sido denegada.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

Telleriarte auzoari buruz alegazio kontrajarriak aurkeztu direla adierazi du.

Auzoko hainbat jabeekin eta bertako auzo-elkartearekin egin dira bilerak eta, horrezaz gain, joan den martxoaren 12an, eztabaida-saio bat egin zen Telleriarteko bizilagunekin.

Bilera hura oso positiboa izan zen eta, bertan, aukera desberdinak aztertu ziren. Oro har, Telleriarte auzoan zerbait egin behar dela uste dute gehienek. Ezadostasunak egin behar dena noraino egin behar den zehaztean datoz. Batzuentzako proposatu den garapena eskasa da eta beste bazuentzako, aldiz, gehiegizkoa da, batik bat dena batera egin nahi bada.

Telleriarte auzorako sarbidea hobetu beharra dagoela diote denek eta gehiengoak bidearen trazadura erabakitzea teknikoan lana dela dio; beraz, ez da zalantzan jartzen Hiri-Ordenazioko Plan Orokorrean jaso dena.

Plan Orokorra bideratzen den bitartean, gaia lantzen jarraituko dugula hitz eman dugu. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena ezagutzea komeni dela uste dugu eta bilera berri bat egingo dugu behin betiko onespina erabaki aurretik. Bitartean, proposatu den garapena denboran luzatzeko formulak aztertuko ditugu.

9 alegazio onartu dira: Kale Nagusia 14ko teilatupean etxebizitza egokitzea; Azpikoetxe eraikina finkatzea; Laubide taberna handitzeko aukera; mendiko txabolak eta aterpeak sartzeko; Olaberriar ULMA enpresaren aprobetxamenduak handitzea; Olaetxen "Aluminios Aleman" enpresak duen pabilioiaren ondoan eraikigarritasuna handitzea; Etxealari izeneko eraikinean aprobetxamenduak eta lerrokatzeak berregokitzea; Egizabal izenaren toponimoa aintzat hartzea eta Zalduarizti izena ezartzea

Comienza señalando que ha habido una serie de alegaciones contradictorias entre sí con relación al Barrio de Telleriarte.

Se han mantenido varias reuniones con propietarios y la asociación de vecinos, y además se convocó un foro con los vecinos de Telleriarte el pasado día 12 de marzo.

La reunión, fue muy positiva y en la misma se analizaron diversas opciones. Hay una visión mayoritaria de que es necesario actuar en Telleriarte. Las discrepancias vienen en el momento de determinar el alcance de esa acción. Para algunos el desarrollo propuesto es escaso y para otros, excesivo, sobre todo para que sea ejecutado de una vez.

Hay unanimidad en que conviene mejorar el acceso a Telleriarte y una gran mayoría estima que la decisión sobre el trazado del vial es técnica, por lo que no se cuestiona el trazado propuesto en el PGOU.

Nos hemos comprometido a seguir madurando el tema, en tanto continúa la tramitación del PGOU. Creemos conveniente conocer el informe de la COTPV y convocaremos un nuevo foro antes de la aprobación definitiva. Entre tanto, analizaremos fórmulas para espaciar en el tiempo el desarrollo propuesto.

Se han estimado 9 alegaciones: Permitir vivienda en bajo cubierta de Nagusia 14; consolidar el edificio Azpikoetxe 4; posibilitar ampliación en bar Laubide; incluir bordas y refugios de montaña; aumentar aprovechamientos en ULMA de Olaberria; ampliar la edificabilidad junto a Aluminios Aleman de Olaetxe; reajuste de aprovechamientos y alineaciones en Etxealari; reconsideración del topónimo Egizabal, por Zalduarizti y no derribar Mira Sol.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

eta Mira Sol ez botatzea.

20 bat alegazio partzialki onartu dira: San Ignazio 30eko behe-solairuan etxebizitza egitea onartzea lehenengo solairura lotuta baldin badago; Ikaztoi izeneko gunean ostalaritza erabilerak onartzea baina ez etxebizitzetarako; Udalak bere gain hartzea Txintxoetxe izeneko partzela osoa; etxebizitzak zatitzeko aukera izatea, behe-solairuetan eta erdi-sotoetan eraikitzeo erraztasunak ematea, etxebizitzetarako eta hirugarren sektorerako eremuak nahasteko erraztasunak ematea, behe-solairuetan eta erdi-sotoetan trastelekuak egokitzea eta, aldiz, gutxieneko batez besteko azalerak murrizteko aukera ez onartzea; Azpikoetxe eremuan 110 edo 115 m<sup>2</sup>ko 150 etxebizitza libreak egiteko eraikigarritasuna ez handitzea eta, aldiz, 104 m<sup>2</sup>ko 143 etxebizitza onartzea; herriko merkataritza babesteko industria- eta merkataritza-erabilerak aldatzea; Azpikoetxe museoa handitzea, zamak murriztea, Urtatzako lursailen erabilera argitzea, auzoetako eta udalerriko sarbideak arautzea eta ez Telleriarte eta Brinkola auzoen arteko bidegorri bat; a.20.24.1 (Agirre etxeberrri) eremuaren profila 2 solairu eta atikora ez murriztea; San Martin auzoan 148 etxebizitza eraikitzeo proposamena ez onartzea eta tasatutako etxebizitzak 8 izatea onartzea; Saturnino Telleria 1aren ondoko blokea kentzea; Urtatzolan 4.110 m<sup>2</sup> partzela ez sartztea eta, aldiz, eraikigarritasuna handitzea eta dauden eraikinak finkatzea; Bikuña-txikitik errekek eta errepideak kentzea; Egizabal eremuan ez da basoa aurreikusten ez delako bertan eraikitzeo leku aproposa baina Zalduko bidea egitean bertako zuhaiztia errespetatuko da; San Ignazio Goian 115 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak onartzea, altueran 0,5 m gehiago emanaz, sotoa partzela osoan eta blokeen arteko 10 metroko banaketa; aldiz, Agirre Etxeberrin ez da altuera 0,5 metrotan igoko eta ez dira gune publikoetan atzeraemandako atikoak onartuko; Goialde eta Urtatzola ez hiritarrak eta ez da ponderazio-koefiziente komertziala 0,3 izatea

Se han estimado parcialmente un total de 20 alegaciones: Permitir vivienda en bajo si está unida a la de la planta primera en San Ignazio 30; permitir usos hosteleros en Ikaztoi y no residenciales; que el Ayuntamiento se haga cargo de la totalidad de la parcela Txintxoetxe; posibilitar la división de viviendas, facilitar la construcción en PB y SS, facilitar la mezcla residencial - terciario, habilitar garajes en parcela privada, trasteros en PB y SS, en cambio, no admitir la reducción de superficies medias mínimas; no aumentar edificabilidad de Azpikoetxe, hasta 150 viv libres de 110 o 115 m<sup>2</sup> y si admitir 143 en total de 104 m<sup>2</sup>; modificar los usos industriales y comerciales para proteger el comercio minorista local; ampliación museo Azpikoetxe, disminuir cargas, aclarar destino terrenos de Urtatza, regular normas para barrios y accesos al municipio y no un Bidegorri entre Telleriarte y Brinkola; posibilitar las huertas de ocio; incluir Ezkibeleta en Industria; no disminuir el perfil de a.20.24.1 (Agirre etxeberrri) hasta 2 plantas y ático; no aumentar hasta 148 viviendas en San Martín y se admite aumentar las viviendas tasadas en 8; quitar el bloque junto a Saturnino Telleria 1; no incorporar una parcela de 4.110 m<sup>2</sup> a Urtatzola en cambio se aumenta la edificabilidad y se consolidan los edificios existentes; se excluye de Bikuña Txiki los cauces y carreteras; no se prevé un bosque en la zona de Egizabal, porque no es buen sitio para edificar en cambio se respeta el arbolado al ejecutar el vial de Zaldu; en San Ignazio Goia se admiten viviendas de 115 m<sup>2</sup>, con 0,5 m más de altura y sótano en toda la parcela y separación entre bloques 10 m, por el contrario en Agirre Etxeberrri no 0,5 m más de altura y tampoco ático retranqueado en los espacios públicos; Goialde y Urtatzola no Urbanos y no se acepta el coeficiente ponderación comercial 0,3; se define el perfil de Aizkorri 11, con uso comercial en Pb, en cambio no se acepta el coeficiente de ponderación de 0,15; no se aumenta el

17tik 4

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

onartu; Azkorri 11ko profila zehaztu da, behe-solairuetan merkataritza-erabilera onartuz baina ez da 0,15eko ponderazio-koefizientea onartu; ez da AI 37.1ean aprobetxamendua handitzen baina urbanizazio-zamak murrizten dira.

Azkenik, hauek dira onartu ez diren alegazioak: Telleriarten Korkostegi baserri ondoko bidearen trazadura ez onartzea; Telleriarteko bide-irtenbidea aldatzea; Olaetxe garajearen etxebizitzak egiteko jasotzea ahalbidetzea; Zaldu eremuan aisiarako gunea egokitzea; Itxaropeneko eskolaurrean etxebizitzetarako eremua handitzea; Telleriarteko plazan aurreikusitako eraikin berriak kentzea; Urola 2an espaloia kentzea; Lenbur museoan tailerrak berregokitzea, Telleriarteko bide-irtenbidea berriz aztertzea; AU30 San Martin auzotik Muruazpira baserria doan bidea mantentzea eta bere jabegoko lursail batzuk ez sartzea, Azpikoetxeko zubia aztertzea eta museoan jartzea; Zaldun Baleike enpresari atxikitako eraikina kentzea, eta sarbideak kentzea; Egizabal eremua partzela berriekin handitzea eta urbanizazio-gastuak kentzea; ekipamenduaren kokalekua aldatu Brinkolan eta behe-dentsitateko etxebizitzak egokitzea. Beheko bide parean bidegorria; zelaietan koniferoak landatzea arautzea; Urtatzola Txiki baserrian Urtatzolako Plan Partzialean konpentsatzea; Telleriarten etxebizitza-kopurua gehitzea eta denak libreak izatea; Bikuña-txikin tasatutako etxeak berriz aztertzea eta babes ofizialekoak ....; Telleriartera atxikitako egikaritze-unitatea mugatzea eta Agirrezabal familiaren bidea aldatzea; a.30eko etxebizitzaren batez besteko tamaina 120 m<sup>2</sup> izatea, a.30eko partzelen aprobetxamenduak arautzea, %50 erabiliz eta m<sup>2</sup>ko m<sup>2</sup> bateko eraikigarritasuna; Telleriarten etxe-blokeak ez eraikitzea; Egizabal eremuan blokean eraikitzea eta, azkenik, ez dira alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskariak onartu.

aprovechamiento del AI 37.1 pero se reducen cargas de urbanización.

Finalmente, respecto a las alegaciones desestimadas: Modificar el trazado de la carretera junto a Korkostegi en Telleriarte; modificar la solución viaria de Telleriarte; posibilitar el levante para viviendas en garaje Olaetxe; dedicar la zona de Zaldu a lugar de esparcimiento; ampliación del ámbito de la zona del Parvulario Itxaropen, para viviendas; eliminar los nuevos edificios previstos en la plaza de Telleriarte; eliminar acera en Urola 2; reubicar talleres en el museo de Lenbur; reconsideración solución viaria de Telleriarte; mantener accesos al caserío Muruazpi del AU30 San Martín y que no se incluyan algunos terrenos de su propiedad; estudio del puente de Azpikoetxe y que sea colocado en el museo; quitar la edificación adosada a Baleike en Zaldu, por proximidad y quitar accesos; ampliar ámbito de Egizabal, para nuevas parcelas y quitar gastos de urbanización; cambiar la ubicación del equipamiento en Brinkola y habilitar viviendas de baja densidad. Bidegorri paralelo al camino de abajo; regulación de plantaciones de coníferas en praderas; compensación del caserío Urtatzola Txiki en el Plan Parcial de Urtatzola; aumentar viviendas en Telleriarte y que todas sean libres; reconsideración de las viviendas tasadas y monetarización de las de VPO en Bikuña-Txiki; delimitación de una unidad de ejecución adosada a Telleriarte y modificación del vial de la familia Agirrezabal; tamaño medio de vivienda a.30 de 120 m<sup>2</sup>, regular los aprovechamientos de las parcelas a.30 con ocupación del 50% y edificabilidad 1 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>; anular la construcción de bloques de viviendas en Telleriarte; edificación en bloque en la zona de Egizabal y finalmente se desestiman las solicitudes de ampliación de plazo para formular alegaciones.

Akta honi erantsita doakio plana idatzi

Se incorpora como anexo al presente

17tik 5

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

duen taldearen txostena.

Segidan, Alkate jaunak Hirigintza batzordearen irizpena irakurri du eta botazioari ekin ondoren aldeko 9 botoekin eta Mendia eta Anton jaunen abstentzioarekin onartu da. Beraz, erabaki hau hartu du Osoko Bilkurak:

Plana idatzi duen taldeak aurkeztutako txostena onartzea, honako puntuak izan ezik:

- 1.- Ordenantza espezifiko onartu arte, behe-solairuetan etxebizitzak egokitzeko erabilera-aldaketa debekatzea.
- 2.- Ekimen publikoko sustapenetan, orokorrean ezarritakoa baino batez besteko azalera erabilgarri txikiagoa onartzea.
- 3.- Egizabal izenaren orde Zalduarizti erabiltzea.

**3.- Bidezkoa bada, Hirigintza-Hitzarmenak behin betiko onartzea.**

Alkate-Lehendakariak hartu du hitza eta "Promociones Elortxo" enpresarekin sinatzea proposatu den hitzarmenari dagokionez, jendaurrean egon den epean ez dela alegaziorik aurkeztu jakinarazi du.

Aktari erantsita doakio onartu behar den hitzarmena.

Hirigintza batzordearen irizpena irakurri eta botazioari ekin ondoren aldeko 9 botoekin eta Mendia eta Anton jaunen abstentzioarekin onartu da. Beraz, erabaki hau hartu du Osoko Bilkurak:

- 1.- "Promociones Elortxo, SA" enpresarekin hirigintza-hitzarmena sinatzeko proposamena behin betiko onartzea.
- 2.- Dokumentua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

acta el informe del equipo redactor.

A continuación el Alcalde da lectura del dictamen de la Comisión de Urbanismo, que se somete a votación con 9 votos favorables y las abstenciones de los Señores Mendia y Antón, por lo que el Pleno acuerda:

Aprobar el informe presentado por el equipo redactor excepto en los puntos siguientes:

- 1.- Prohibir el cambio de uso en planta baja a vivienda hasta la aprobación de la ordenanza específica.
- 2.- Permitir la superficie media útil inferior a las señaladas con carácter general, en promociones de iniciativa pública.
- 3.- Denominar a Egizabal como Zalduarizti

**3.- Aprobación definitiva, si procede, de convenios urbanísticos.**

Toma la palabra el Alcalde-Presidente para referirse en primer lugar al convenio a suscribir con Promociones Elortxo, señalando que durante el periodo de exposición pública no se presentó alegación alguna.

Se adjunta como anexo el convenio a aprobar.

Tras dar lectura del dictamen de la Comisión de Urbanismo, con nueve votos a favor y las abstenciones de los Señores Mendia y Antón, el Pleno acuerda:

- 1.- Aprobar definitivamente el convenio urbanístico a suscribir con Promociones Elortxo, S.A.
- 2.- Publicar el documento en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

3.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena sina dezan.

Echeverria familiarekin sinatu nahi den hitzarmenari dagokionez, Alkate jaunak Legazpiko Ezker Batua-Berdeak taldeak alegazio bat aurkeztu duela esan du; beraz, IU taldeko zinegotzi Anton jaunari galdetu dio ea horren gainean zerbait esan nahi duen. Anton jaunak alegazio horren berri oraintxe bertan izan duela adierazi du.

Alkate jaunak, beraz, ez duela alegazioa baloratuko esan du eta hari erantzun dio. Hasteko, Agirre-Etxeberri izeneko eremurako proposatu den antolamendua lan-prozesu luzearen eta eztabaida publikoaren emaitza dela dio; proposamen desberdinak aurkeztu dira eta bi aldiz jarri da jendaurrean (Aurrerakinarekin batera 2005eko uztailean eta hasierako onarpenarekin 2006ko azaroan) eta proposatutako irtenbidea Osoko Bilkurak behin-behineko onar dezala erabaki zen.

Proposatu den antolamendua, beraz, jendearen parte-hartzearekin lortutakoa da eta, Agirre-Etxeberri eremuan nabaria izan da adostasun hori.

Hirigintza aldetik proposatu den emaitza modu egokian txertatzen da eremuan eta arrazoizko eraikigarritasuna lortu da (proiektatutako sistema orokorrak kenduta, m<sup>2</sup>(t) bakoitzeko 0,51 m<sup>2</sup>ko erreferentziazko jarduketa-eremu integratuaren azalerari dagokion eraikigarritasuna, m<sup>2</sup>(t) bakoitzeko 0,71 m<sup>2</sup>koa da), lurzorua eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Lege berrian onartutako gehienekoak (hiri-lurzoruan m<sup>2</sup>(t) bakoitzeko 2,3 m<sup>2</sup>) baino txikiagoa proposatu diren bestelako jarduketa integratuekin alderatzen badugu; bestetik, jarduketa hori parte-hartze prozesu batean sartu da eta prozesu horretan hiru helburu hartu dira

3.- Facultar expresamente al Alcalde para la firma del convenio.

En cuanto al convenio a firmar con la familia Echeverria, el Sr. Alcalde señala que se ha presentado una alegación por parte de Ezker Batua – Berdeak de Legazpi, por lo que pregunta al Concejal de IU, Sr. Antón, si quiere manifestar algo al respecto. El Sr. Antón dice que acaba de tener conocimiento ahora de que se había presentado esa alegación.

El Sr. Alcalde manifiesta entonces que no va a valorar la misma y se limita a contestar a la alegación. Comienza diciendo que la ordenación propuesta en Agirre-Etxeberri es el resultado de un largo proceso de trabajo y debate público en el que se han planteado muy diversas opciones y se han realizado dos exposiciones públicas (en relación con el Avance de julio de 2005 y con la aprobación inicial de noviembre de 2006), decantándose la solución que se plantea someter a la aprobación provisional del Ayuntamiento Pleno.

La ordenación propuesta es por lo tanto fruto de un proceso de participación pública y concertación que, precisamente, en el entorno de Agirre-Etxeberri se ha hecho aún más evidente.

El resultado urbano se integra por otra parte adecuadamente en el lugar dando lugar a una edificabilidad razonable (resulta una edificabilidad referida a la superficie del ámbito de actuación integrada de referencia de 0,51 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup> que, excluidos los sistemas generales proyectados, asciende a 0,71 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>), muy inferior a los estándares máximos admisibles de acuerdo con la nueva Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo (2,3 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup> en suelo urbano, como es el caso), comparable con otras actuaciones integradas que se proponen, y propio de una intervención que se enmarca en un proceso en el que han primado tres

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

kontutan: proiektuaren iraunkortasuna, proiektua burutzeko bideragarritasuna eta adostasuna. Hori guztia gaur egun udalerrian dagoen eskariari erantzuteko asmoarekin eta denbora aldetik ikusmuga 2015. urtean jarrita.

Beraz, zalantzarik gabe kasu honetan Plan Orokorrak legaltasunaren, gardentasunaren eta publizitatearen printzipioak betetzen ditu.

Hirigintza-hitzarmena sinatzeko proposamena Plan Orokorren zehaztapenak betzera dator, proposatutako planteamendua bere osotasunean egingo dela bermatzeko xedearekin.

Idatzian jaso denaren arabera, Plan Orokorra lurzorua eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Lege berriak dioena betez bideratu da eta Legean hiri-lurzoruan esku hartzeko modu egokian jasotzen diren mekanismo berriak erabili dira.

Horrela, idatzian eskatu den parkea izatea ahalbidetzen du proposamenak. Parke hori, gainera, hirigunean kokatzen da eta Plana buruzetik lortutako lagapen gisa jabego publikoko sistema orokorraren maila duen eremu libreko azalera lortzen da. Eraitza, erdi-erdian dagoen parke bat da, kuantitatiboki azalera garrantzitsua duena eta, horrezaz gain, kualitatiboki ere interes berezia duena; horrela, jabari publikotzat finkatuko dira kalitatea eta itxura berezia duten zuhaitzak.

Proposamenak, halaber, egikaritze-unitate ez-jarraituaren antolamendua aurreikustea ahalbidetzen du. Horri esker, posible izango da Santa Cruz egoitzaren parean dagoen espaloia eta Urola kaleko espaloia egitea.

Aktari erantsita doakio sinatuko den hitzarmena.

objetivos: la sostenibilidad del proyecto, la viabilidad de su ejecución y la concertación, todo ello en aras a responder a la demanda del municipio en la actual coyuntura y con el horizonte temporal del año 2015.

Concorre por lo tanto indiscutiblemente en el caso que nos ocupa el sometimiento del Plan General a los principios de legalidad, transparencia y publicidad.

La propuesta de convenio urbanístico tan sólo viene a completar las determinaciones del Plan General con el objeto de garantizar que se haga efectivo el planteamiento propuesto de forma íntegra.

Tal y como se plantea en el escrito, el Plan General se ha tramitado de acuerdo con la nueva Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, utilizando precisamente los nuevos mecanismos que ésta acertadamente incorpora para la intervención en el suelo urbano.

Así, la propuesta permite obtener para el municipio el parque que en el escrito se demanda, en pleno centro urbano, consiguiendo una superficie de espacios libres con rango de sistema general de titularidad pública como cesión derivada de la ejecución del Plan. El resultado es un parque central que además de contar con una superficie cuantitativamente relevante resulta cualitativamente de especial interés, consolidándose para el dominio público ejemplares arbóreos de calidad y porte singulares.

La propuesta posibilita también prever la ordenación de una unidad de ejecución discontinua que permite abordar la necesaria ejecución de una acera frente a la Residencia Santa Cruz y en Urola Kalea.

Se adjunta como anexo el convenio a firmar.

**UDAL-KORPORAZIOAREN  
OSOKO BILKURAREN  
AKTA**

**2007/03/28**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**ACTA DEL PLENO  
DE LA  
CORPORACION MUNICIPAL**

**28/03/2007**

Hirigintza batzordearen irizpena irakurri eta botazioari ekin ondoren aldeko 9 botoekin eta Mendia eta Anton jaunen abstentzioarekin onartu da. Beraz, erabaki hau hartu du Osoko Bilkurak:

- 1.- Euskal Berdeak ordezkatzuz Iñaki Saldaña jaunak aurkeztu duen alegazioa ez onartzea.
- 2.- Legazpiko Hiri-Ordenazioko Plan Orokorren A.I. 24/25/29.1. Jarduera Integratua betetzeari buruz izenpetzea proposatu den hitzarmen urbanistikoa behin betiko onartzea.
- 3.- Dokumentua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 4.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena sina dezan

**4.- Bidezkoa bada, Plan Orokorra behin-behineko onartzea.**

Alkateak hartu du hitza eta Telleriarte, Brinkola eta Azpikoetxe auzoetako hirigintza-fitxak azaldu ditu.

Segidan, Hirigintza batzordearen irizpena irakurri eta botazioari ekin ondoren aldeko 9 botoekin eta Mendia eta Anton jaunen abstentzioarekin onartu da. Beraz, erabaki hau hartu du Osoko Bilkurak:

- 1.- Legazpiko Udal Plangintzako Plan Orokorren dokumentua behin-behineko onartzea baina aurkeztutako alegazioei buruz plana idatzi duen taldeak aurkeztutako txostena onartzetik egingo diren egokitzapenak aipatu dokumentuan sartuz.
- 2.- Dokumentua Euskal Herriko Lurralde-Antolamendurako Batzordera igortzea.
- 3.- Etxebizitzei dagozkien gaietan eskumena

